

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urtarrilaren 22a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Elizondo • Xorroxin irratiak egoitza berria ireki du.

Angel Luis de Miguel • «Iraupeneko eski estazio baten alde borrokatzen gara».



• MIKEL SAIZ

Munduko

fauna

txikiaren bilgune

Opuseko Unibertsitateak Natur Zientzien Museoa zabaldu berri du Iruñean. Egoitzak 9000 ale bildu ditu, eta erakuslehioan nagusi dira ehun urtetan zehar Lekarozko kaputxinoen ikastegiak bildutako

6000 aletik gora. Museoan

Penintsulako animaliak ez ezik, era guztietako marraskiloak, tximeleta exotikoak eta mineralak bildu dira.



Baztan-Bidasoa •

Xorroxinen kolore berriak

18 urte ostean egoitza berria estreinatu du Elizondon irratiak

Udaberrian beteko ditu hemezortzi urte Xorroxin irratiak. Helduaro horri ekiteko egoitza berria estreinatu du, orain artekoekin zerikusi guti duena. Erabat profesionala da egoitza, eta teknologia berriekin hornitu dute.



Elizondoko egoitza berria teknologia berriekin hornitu dute Xorroxin Irratikoek.

GARI GARAIALDE

1981 EKO MARTXOAREN 19 hartan Iruñatik ekarritako tresneria ekarri zutenetik gauzak anitz aldatu dira Xorroxin irratiarentzako. Erratzuko eskolan gela bat okupatu zuten, eta leihotik sartu behar izan zituzten trasteak. Orain, hemezortzi urte beranduago, eta urte hasierarekin batera, Elizondoko egoitza estreinatu dute, Iruritaokoa alde batera utzirik. Egoitza berriari bi estudio, lokutorio bat, erredakzio gela bat, administrazio eta publizistentzat gelak eta bildegia kokatu dituzte Xorroxineko kideek. Paretak kolore biziz margotu dituzte, eta hortik etorri zaie inspirazioa kanpaina berri bati ekiteko: 'Ezagutzen al dituzu Xorroxin-

nen koloreak?'. Diru premiaz egonik ere, oraingoz ez dute asmorik jendeari eskatzen aritzeko. Kanpainaren helburua leku aldatzea informatzea, eta Xorroxin irratiaren ahotan egoitea dago. Egoitza aldaketarekin batera tresneria berritzeko aukera aprobeztatu nahi izan dute. Hala, nahasketetarako mahai berria paratu dute, baita konpresore eta kodifikadore estereoa ere. Orain arte bezala seinalea Legatera bidaliko dute,

han baitute paratua 500 wattotako emisora. Legatetik Larunera bidaltzen dute seinalea, etxe guztietara iristen dena. **Lanean tinko** Euskararen aldeko lan esker-ga egiten dabilen irrati Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietara hedatzen da. Egun 7 lagun ari dira lanean Xorroxin irratiaren, bortz kazetari, publizista bat eta administrari bat. Nafarroako Gobernua Lesakarako lehiaketa bidez ateratako lizentziaz jabetu ostean, lasaitasuna eta kezka batera etorri zaiela azaldu dio Nafarkariari Xumuxuk, irratiaren denbora gehien daraman kideak: «Aspaldidanik ari ginen lizentzia eskatzen, eta orain lortu dugula lasaitasuna ekarri digu. Madrilek gure aukera onartzen duen unetik urtebeteko epea dugu Lesakan lanean hasteko. Horrek ekonomikoki bertze inbertsio bat eskatzen digu, eta Elizondokoaren on-

dotik ez da erraza izanen. Aukera guztiak aztertu behar ditugu orain». Bederatzi ordu eta erdiz eskaintzen dute programazioa, eta gainerako orduetan musika entzun daiteke Xorroxinen seinalean. Goizeko 7:30etan hasten da programazioa eta etenik gabe izaten da eguerdiko 14:00ak bitarte. Arratsaldez, berriz, 19:00etatik 22:00etara aritzen dira.

Anitz aldatu dira gauzak

Hasiera hartatik hona erabateko aldaketa somatu du Xorroxin irratiak. Egoitza ez ezik, tresneria ere goitik behera aldatu da. Baina baita funtzionamendua ere. Irrati libre izatetik erabat profesionala izatera igaro da. Hala ere, programazioaz kanpo edozeinentzat idekia dago, nahi duenak zernahi egin dezake, ohartarazi du Xumuxuk. «Jendeak uste du gure arteko gauza bat baino ez dela, eta egun ez dasomatzengarai batean berehala jendea bere saioak egitera datorrenik», dio Xorroxineko kideak. Egoitza berriak, hala ere, ez du filosofia aldatu, eta txukun egonagatik ere, denentzaititu ateak zabalik irratiak, herritar guztientzako egin nahi baitute irratiak.

→ Jon Abril

metropoli forala

FELIPE RIUS



Memoria eta ahanztura gogoaren puntu berean egoten dira. Halako zerbait dio Bruno Ganz aktoreak Alain Tanner-en *Hiri zurian* filmaren bukaeran, Lisboatik urrun eramaten duen tren hartzean, eta irudiak berrikustean metropoli foraleko geltokiaz eta bertan hasitako bidaiez oroitu naiz. Geltokiak, handiak edo txikiak, munduko hiriburuetakoak nahiz zelai bukaezinen erdian abandonatutako etxola txikiak, memoria eta ahanztura elkartzen diren toki estrategikoak dira, gure gogoaren zirrikituaren ezkutututako puntu hura bezala. Zenbat istorio hasi eta bukatu diren geltokietan, zenbat aurpegi maitatu galdu ditugun betiko tren baten atearren atzean eta zenbat aurpegi ezezagun maitatzen hasi garen konpartimentu txikietan. Askotan, hirietako kaleak, eraikinak, jendea, taberna eta inguruak ezabatzen dira gure oroimenean, baina geltokiak ez dira aise desagertzen memoriatik.

Geltokietako bideoklipak

Treanean aurkitutako emakume eder batek hiri batean ibiltakoa, egindako guztia ahantzerazi ahal digu, eta azkenean bere begiak eta leihatilatik ikusitako errotoak baino ez ditugu gogoratuko. Adiskide batek kontatu zidan trenez egindako bost eguneko bidaia bat izan zela bere bizitzako momenturik zoriontsuena. Liburu batzuk eta walkman bat besterik ez zeraman, ekipajerik gabe joan zen orduan aurkitzen zen labirintoaren iteerririk ikusten ez zuen egun batean. Bapatean erabaki zuen trenera igotzea, nora zihoan jakin gabe, denok inoiz egin nahi izan duguna eta ausartu ez garena egia bihurtuz. Bost egunez paisajeak eta geltokiak baino ez zituen ikusi, walkmanen kaskoak belarrietan jarrita, bideoklip pertsonal bitxia osatu zuen, sekula ahaztuko ez zaiona. Bere buruarekin berradiskidetu egin zela esan zidan, urtetan falta izan zitzaion pakea aurkitu zuen Trieste, Ljubliana, Sarajevo, Belgrado, Budapest eta beste geltoki

askotako nasetan alde batetik bestera presaka zihozten bidaiariei eta saltzaileei begira (leku batzuetan ezin zuten susmatu handik hilabete batzuetara gizon armatuek ametsak eta proiektuak deuseztatuko zituztela). «Ez dut ulertzen zergatik egiten duten batzuek beren buruaz beste, walkman batekin eta liburu batzuekin tren batera igotzea horren erraza izanda», bota zidan bere bidaia magikotik bueltatu zenean. Aspaldian gertatu zen hori guztia, ideologiak eta hormak lurrera erortzen ziren garaian. Egun hauetan e-mail ugari bidali dizkiot, baina ez dit erantzun. Beharbada geltokiz geltoki dabil berriro ere bere gogoan beste bideoklip bat egiten (bluesa izanen da nagusi, seguro aski) edo, kasurik txarrean, jendeak tren batera igo beharrean bere buruaz beste egiteko dituen arrazoiak aurkitu ditu eta hildako baten ordenagailura bidaltzen ari naiz nire mezu elektronikoenak, inork inoiz irakurriko ez dituenak.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Lizarra

XVI. mendeko
margoak
aurkitu berri
dituzte

Lizarratik hamabortz bat kilometrotara dagoen Azketa herrixkan XVI. mendeko margoak aurkitu berri dute. Bertako elizan garbiketa lanak egiten ari zirela agertu da erretablea bitxia. Margoaren goikaldean Jaungoikoaren irudia ageri da eta behekaldeko partean bertze hiru irudi: San Pedro, Santa Catalina, eta San Pablo. Adituen esanetan erretablea Berpizkunde garaikoa da. Izan ere, eliza bera eta bertan dagoen bertze erretablea barroko bat paretatik eskegi ostean, margoa ikusi dute lehenak. Urteetan XVII. mendeko erretablea egin izan da paretan, baina hau kendu zutenean begi bi ikusi zituen langile batek. Pixkanaka-pixkanaka eta eskubila batez lagunduta Jaungoikoaren irudia agertu zen oso-osorik eta jarraian Santa Catalinarena. Bertze bi irudiak igeltsuz estaliak zeuden eta erretablea izan da lan xehe horretan aritu dena. Badirudi San Pedro eta San Pabloren jantziak motzak zotela. Izan ere, hankak agerian dituzte, eta garai hartako elizak estaltzea erabaki zuela aproposak ez zirenaren seinale.


Ezer gutxi jakin da margo honen egilearen inguruan. Dena den, bere estiloa herrikoa eta soila omen da. Artisauek egindako margoak erabili izan ziren bertan, esaterako lurretik ateratako gorria oso nabarmena da.

→ Kristina Berasain

Leitza • Hitzordua inoteekin asteburuan

Bihar hasi eta asteartera arte iraunen dute inoteak

Huitzikoen lekuko hartuz bihar hasiko dira Leitza inoteak. Festa txikiak asteartera arte iraunen dute. Leitza, urtean behin bada ere, nahi dutenaz atsoaguretzeko aukera izanen dute.



AURRERA KIROL ELKARTEAK, Udaletxeak eta Irauli gazte taldeak elkarlanean antolatu dituzte aurtengo inoteak. Aurreko urteetan bezala larunbat arratsaldean hasiko dira Leitza gazteek etxez-etxe herrian egiten duten eskearekin. Seietan Goizueta eta Leitza pilotari gazteen arteko partidua izanen da eta 21:30etan atsoaguretu afaria eskolan. Igandean atsoagure bazkaria izanen da berriro eskolako egoitzan.

Astelehena egun hoberena

Astelehena egun berezia da leitzaizentzako. Behin asteburuko kanpotarrik gabe, herria lasaigo egonen da eta gazteek, Arkiskil, Gorritzaran, Erreka eta Sakulu auzoko baserrietan



Leitzarrak baserri ibiliko dira astelehene eta astearte goizean. ● JOXE LACALLE

puska biltzen ibiliko dira. Baserri baserri otordu mukaduren bat hartu eta dantzaz aurreratu ibili eta gero, arratsaldeko azken orduan jaitsiko dira herrira eta Aurrera Kirol Elkartearen egiten den afariarekin bukatuko dute itzulia. Hiru egunekin nahikoa izan ez duenak azken indarrak astintzeko aukera izanen du asteartean. Goizean Erasote auzoan puska biltzen ibiliko dira bezperan nahikoa izan ez zutenak. Hiru egunetan Aurrera Kirol Elkartera bilduko dira bazkaltzera. Haurrentzako ere izanen da zeregirik inotee-

tako azken egunean. Atsoaguretute kalejira egiten dute Incansables txarangaren doinuaren arrimoan 12:30etan, eta hiru ordu beranduago txokolate beroa eta bonba japoniarrak izanen dituzte herriko plazan. Musikazaleek ere izanen dute gozatzeko aukera Leitza Musika Eskolako Berako Isidoro Fagoaga Musika Eskolako soinu-joleen kontzertua antolatu baitu 17:00etan. Gaueko dantzaldia Nuat taldeak eskainiko du aspertu arte.

→ Uxue Zabaleta

volapük eta formola

Espezialista zahar eta jakintsu baten traza guztiak zituen. Burua eta bata txuriak, lepotik zintzilikatutako betaurrekoak, eta 70 urteko adina aurpegian. Bataren poltsikoetan kolorezko boligrafoak eta Donjulian bat. Eskuan urrezko erantzuna eta Nafarroako kateak bihotz ondoan. Euskalduna ez izan arren gaian adituena zela esanez aurkeztu zidaten. Bere gela txikian hartu ninduen. «Euskara batua ez da benetako euskara Volapük bat baizik» esan zidan hasiera hasieratik. Tximeletak bailiran kristalezko kutxa batean orratzekin iltzaturiko euskal hitzak erakutsi zizkidan. «Begira hau, eta hau, eta beste hau... ez dira erabiltzen! Volapük hortan ez dute kabidarik nonbait! zer iruditzen zaizu? Begira etiketak begira! Nafarroako herrietan bilduak dira guztiak!». Arrazoa eman behar izan nion. Guztiz ezezagunak ziren niretzat. «Euskara beste gauza bat da» esan zidan. «Noski maite dugula euskara! Euskara Nafarroako altxor bat bezala gorde behar dugul, baina bene benetakoa! Zatoz! ikusi hau!». Plastikozko eskularruak jarri eta kutxa baten kristala altxatuz orratzetik helduta hitz bat hartu zuen. «Kontu haundiz! kontu haundiz!» esaka Mikroskopioaren azpian jarri eta begiratzeko gonbitea egin zidan. Ez nuen asko ikusi eta halaxe esan nion. «Kontua ez da ikustea gizona. Materiala da kontua. Mikroskopioarekin zehatzago behaztatu ditzazkegu hitza osatzen duten erro eta alakoak. Etorri etorri!». Diru-kutxa hoietakoa bat, blindatua, ireki eta pote nahiko haundi bat atera zuen. Barruan likidoan sartuta zer edo zer beltza antzeman zitekeen. «Formolean gordeta daukagu gure altxor preziatuena» esan zidan. Mugimenduarekin gauza beltz haren inguruan martxan jarriak ziren hondarrak eta material biologikoa ekarri zidan gogora; edo asteroideetaz inguratutako zulo beltz astronomiko bat. «Erronkariko euskara da hau gizona!» xuxurlatu zuen hunkiturik. «Ukitu al dezaket?» galdetu nion. Berak buruarekin baietz. Tapa ireki eta luzatu zidan. Formolean behatza sartu eta ukitu nuen. Erronkariko euskara. Hotza zegoen. Oso oso hotza.

Egunkarirako, UPNko egoitzatik, xabier larraburu. ●



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Haur Kantu Xapelketaz

HAUR Kantu Txapelketari buruz mintzatu da Herria astekaria Eñaut Larralde antolatzalearekin, bere azken zenbakian, aurten txapelketa berriz egiteko delat aitzakitzat hartuta. Herriak egindako galderei erantzunez, eta xuka, Oztibarreko moldean, ondoakoak erran ditu Larralde: «Azken txapelketa iragan zuxun duela bi urte, 97an, beraz, aurten egiten duxu berriz. Helduen txapelketa aldiz lau urtetarik. Xapelketa horien helburuak hiru txu: lehena euskal kantua- ren ezagutaraztea, milaka kanta zahar batu eta horiek etxu ahanzi behar, gogoan atxiki


eta kantatu, jendeeri eman horien berriz kantatzeko aiherra. Bestalde gertatzen bada kantari bat ezezaguna, hari parada ematen zaio publikoaren aitzinean agertzeko eta bere dohainaren ezagutarazteko, eta menturaz kantari bat bilaka dadin geroari buruz. Hirugarren xedea duxu, kantu berrien egitea; idazle edo musika egile berri baldun bada haien sustatzea, emaitza parada beren obren ezagutarazteko».

«Haur guztiak onartzen tixugu sei urtetarik eta hamabost urte bete arte. Hartzen ahal tutxu bakarrik, birazka edo taldeka,


musikarrik gabe, edo musikariek lagundurik. Ohartu gitxu ez gintzela ttipienak eta gaztetxoak nahas mahas uzten ahal, orduan bi txapelketa egiten tixugu, bata haur ttipientzat, eta bestea gaztetxoentzat, biak leku eta egin berean. Lehiaketak probintziak antolatzen ditzugu: lehena apirilaren bostean, Bazko bihamunetz Omize gainen Xiberun. Hazpainen apirilaren 18an igandekari eta Baxe Nabarraren kondu Iri-sarrin, maiatzaren bian. Probintziak hautatuen arteko finala nagusia iraganen duxu Arrigorriagan, Bizkaian maiatzaren 30ean».



naturaren berezitasunak




Animalia exotikoak



tximetak



hegazti harrapakariak



etxeke hegaztiak

Munduko faunaren bilgune

Opuseko Unibertsitateak zabaldu berri duen Natur Zientzien Museoak 9000 ale biltzen ditu, horietatik 6000 Lekarozko ikastegiak emanak

Opuseko Unibertsitateak Natur Zientzien Museoa zabaldu berri du Iruñean. Egoitzak 9000 ale bildu ditu, eta erakuslehioan nagusi dira ehun urtetan zehar Lekarozko kaputxinoen ikastegiak jasotako 6000 aletik gora. Bilduman Penintsulako espezieak ez ezik, apaizek misioetan hartutako era guztietako barraskilo, tximeleta eta mineralak topa ditzake bisitariak.

NAFARROAKO UNIBERTSITATEKO ZIENTZIA Eraikina Natur Zientzia Museo bilakatu da. Egoitzak dituen bost solairutako banaturik lauogei eta hamalau beira-aratsetan Penintsulako zein Munduko beste txokoetako hainbat espezie bildu dira. Izokinak bai baina inork gutxi noizbait Bidasoako ibaian bistatu duen 62 zentimetrotako amorraina, Pazifikoko irlaren bateko itsasertzean hartutako barraskilo handiena —Melaniden izenekoa—, baserritarren batek Lekarozko alpaize emandako bi buruko txekorra edota misio-

lari bati Venezuelako indio batek eskainitako bederatzita metroko boha dira, beste 9000 aleren artean, museoak bildu dituen Munduko faunaren erakusle. Rafael Jordana Opuseko Unibertsitateko Zoologia eta Ekologiako zuzendaria dioten moduan, bilduma osotasunean da esanguratsua eta helburu zientifikoa baino gehiago didaktikoa du. Baina Zientzi eraikinak lekutzen duen erakuslehoak heziketarako balioa izateaz gain, desagertzearen dauden espezie asko jaso dira. «Egun diseinatze eta chizatzea debekatua dagoen ugatza eta saia daude. Mirua, arrano beltza, oiloa, hontza, antzarak, lertxuna, zikoina beltza eta zuria, kurrilloa... ere ikus daitezke», azaldu du. Beira-arasa bakoitzean hegaztien historia, migrazioak, bizilekua ikas daitezke. «Jendeak informazio osatu bat eraman dezan egina dago», gaineratu du. Baina hegaztiak ez ezik, bestelakoak ere lekutzen ditu erakinak. Beheko solairuan Jose del Rio y Soler De Cornellas arkitekto madrildarrak emandako 2500 itsas barraskiloa ageri dira, eta, nola ez, Lekarozko bildutako milatik gorako fosilak eta mineralak. «Bi bildumekin 3000 espezieetako 4000 ale

ditugu. Oso bilduma garrantzitsua da eta maila handikoa. Mundu osoko fauna ordezkatzen duelako», dio Jordanak. Hori gehitu behar zaio Jaime Anfruns katalanak utzitako tximeleta tropikalen bilduma. Nolanahi ere, museoak bildu dituen alerik gehienak Lekarozko ikastegiak dira, 6000, hain zuzen.

Ehun urte baino gehiagoko bilduma

Lekarozko ikastegia 1891an sortu zen eta 1989-90 ikasturtean itxi zen, nahiz eta egun eraikin zaharrean bost apaiza bizi diren. Mamifero handiak, bertakoak, otsoak orain ez badira ere hemengo mendietan. Ehun eta zortzi urte horietan bildutako aleak dira Opuseko Unibertsitatean jarri direnak. Dena den, 6000 ale eskuratzea ez da batera erraza, baina, kaputxinoak, hainbeste urtetan auzokide izan dituzten baztandarren moduan, tuku-tuku ale interesgarri eta baliagarri ugari bildu zuten. Vidal Perez Villarreal kaputxino arabarra 1951an sartu zen Lekarozko ikastegira. Egun Iruñean ordenak duen egoitza batean bizi da eta malenkoniak gogoratu ditu urte haiek. Misioetako mintegi bezala sortu bazen ere, denborarekin ikastetxe bihurtu zen. Horregatik museoan jaso diren ale asko Pazifikoko irletatik ekarritakoak dira. «Palaoseko irlara iritsi ziren eta 1886tik hasi ziren hainbat objektu biltzen. Han jasotako zati handi bat Lekarozko dago oraindik», gogoratu du kaputxinoak. Bestalde, museoan aurkitu daitezkeen espezie exotiko guztiak: Gartzaingo artisau batek zurratutako bede-

ratzi metroko boha, anakonda bat, kaimana, higuana, hegazti tropikalak...

Euskal Herrian ez zeuden espezieak gain, Penintsulakoak eta etxabereak ere bildu zituzten kaputxinoek: azeria, basakatua eta erbiunidea. Era berean, ehiztariek emandako hainbat espezie, edota Baztango ikuluetan jaiotzen ziren abere bereziak: bi buruko txekorra, zortzi hankatako katua... Baina bildu eta sailkatu ez ezik, diseinatu ere beraiek egin zituzten. «Espainiak koloniak galdu zituenean Venezuelan eta Txilen urte askoz bizi izandako Tafallako Jose Maria Abinzano kaputxinoa Lekarozera etorri zen eta hark diseinatu zituen museoan aurkitzen diren piezak. Abilidade ikaragarria zuen», azpimarratu du Vidalek.

Etxabere, basapitzi eta hegaztiak gain, mineral eta harrien bilduma nabaritu nahi izan du arabarrak. «Harri asko Baztanen

Rafael Jordana

«Egun diseinatze eta ehizatzea debekatua dagoen ugatza eta saia daude. Mirua, arrano beltza, oiloa, hontza, antzarak, lertxuna, zikoina beltza eta zuria, kurrilloa... ere ikus daitezke».

hartuak dira, eta 1000 mineral inguru ere. Nik neuk hartuak asko. Burdina, nikela... Baztango harrobietan fosil ugari bildu genuen. Barietate gutxi daude han, baina ausarki aurkitzen dira, eta oso ederrak», aitatu du. Bestalde, tximeleta bilduma ere goraipatu du, tropikotik ekarritakoak ez ezik, Baztanen eta Europako beste eskualde batzuetan bildutakoak jaso baititu.

Kaxa didaktikoa

Baina erakusketak badu ere beste bereizgarriarik, Vidal Perezek deitu dituen kaxa didaktikoa ageri baitira. Ehun urte dituzten kaxak dira eta haurrei naturaren hainbat prozesu eta gertaera nola jazozen ziren agertzeko erabili ohi ziren. Benetako arribitxiak Jordanaren iritziak. Egun bideoan eta telebistan ikazten den moduan, adibidez artoaren ikatza, papera edo kalamua nola

Balio handiko beste material asko

Opuseko Unibertsitateak Lekarozko ikastetgiko materialak zuen interesa ikusirik berehala lekutu zuen Zientzia artean. Nafarroako Museoan bildu denak balio handia duela ezin ukatu. Nolanahi ere, Vidal Perez kaputxinoak dioenez, Lekarozko ikastetxe zaharrean dagoenak ere balio handiagoa du. «Han balio etnografiko handiko gauzak gorde direlako», dio. Ehun urteko museoan laborategi, bulego eta sukaldeetan erabilitako materialak jaso dira. «Bagenekien hura itxi behar genuela gizartea aldatu egin delako. Balio handiko objektuak daude eta hobe da zer dagoen ez esatea. Batek baino gehiagok esan digu hobekiago babestu beharko genituela», gaineratu du pentsakor. Duela gutxi Nafarroako Museo zuzendaria material horretaz galdetu omen die han dauden materialekin zer bait egin daitekeelakoan. Oraingo, ikastetxe zaharrenean dauden bost apaizen kargura geldituko da.

egiten diren argitzen du, edota, tabakoa, garia, ehuna, azukrea, olioaren mostrak bildu dituzte. «Pentsatu behar da orduan kasik ez zegoela argazkigintzarik, are gutxiago diapositibak eta bideoak. Zegoena hau da eta oso interesgarria da», azpimarratu du Jordanak, eta «desagertu den irakasteko modu bat da eta haurrei gauzak nola diren erakusteko esfortzu handia egin zutela adierazten dute», gaineratu du.

Beraz, asko dago ikusteko museoan, patxadaz eta soseguz solairuz solairu matxin-saltoen moduan saltatuz, batek pentsa dezake etxeke ikuluan dagoela, Pazifikoko irlaren batean, Pirinioetako gailurren batean, Iruriko harrobien batean edo udaberriari birgarro habiak ukitzen... Natur Zientzien Museoan imaginazioa aske uzte besterik ez du.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Biktoriano Iraolaz aipu labur

Pasai Donibaneko Biktoriano Iraola Hegoaldeko bi gerrateen artean -azken karlistada eta 36.ekoa- sortu belaunaldiaren adibide ezin esanguratsuago dugu; olerkia zein antzerkia zein narratiba landu zuen, eta, agian, munta handiko lana egin ez bazuen ere, kopuru aldetik behinik-behin baztertu ezin den lana bazaigu egun



Muchos nombres de esta generación -la que siguió a la terminación de la última guerra carlista y que es anterior a la nueva ola que se abre paso en el primer cuarto del siglo XX- han sido preteridos al imponerse las nuevas corrientes, y sin embargo son bien dignos de ser rescatados del olvido: R. Artola, R. Azkarate, B. Iraola, E. Elicechea, etc. Ez dakit zein neurritan Villasanteren hitzok artatzen ari diren egun, baina arras pozgarria zait DBH-n erabiltzeko Mendiguren-Eizagirre tandem gotorrak berriki ateratako testu-liburua *Euskal literaturaren antologia*. Donostia, Elkarlanean, 1998- txirikordatzeko erabili irizpidea, eta horra hor, non Iraola dagerkigun haundien -baita apalagoen ere artean -argazki eta guzti, alaintso!-

Pasai Donibanen 1841.ean sortu zen Biktoriano Iraola Aristigietan, Donostian bizi bazen ere. Katalina Albarez-Azpeitiarekin ezkonduarik, Azpeitia karrrikako 5. zenbakian zeukan inprimategian egiten zuen lana -Pio Baroja aterbetu zuen erai-kin berean-, irarkola asto batek mugitzeak makina esan-mesan sortarazten zuela. Errepublikazale eta foruzale, Donostiako zinegotzia ere urte luzetan arizan zen, Kontxako tamarindoak ekartzearen alde bozkatu zutenetakoa izanki. 1919.eko irailaren 19an hil zen Donostian.

Langile porrokatua, abondo paper ziprztindut zituena, solte edo garaiko aldizkarietan ageri zirenak, bere izenez, edota *Churi* nahiz *Sei* ezizenenpean. Genero guztiak landu zituen. Lehenbiziko lanak bertsozalearen barruan burutu zituen, esate baterako, Iruñeko *Euskara* aldizkarian 1880. eta 1881. urteetan agerturikoak: «Abenduaren 7a 1688garren urtean» -hau ere *Bertsolariya* aldizkarian agertu zen 1932.ean-, «Guda, gudariak eta

beren itz-bideak» eta «Lore igartua», baita *Bertsolariya* aldizkarian ere 1932.eko agorrilan argitaratu emaniko «Pilotariyak» izenburupeko bertsoak, bertan argitu zuenez, 48 urte lehenago eginak zirenak.

Ezagunagoa igaro zitzaigun, ordea, antzerkigintzan garatu zuen lanarengatik. Iraolaren antzerkilanako oro alaiak eta umoretsuak ditugu, far eragile bezain arin. Soroa maisuak hasitako ildotik, eta zerrenda luze baten osatzaile. Kronologikoki emanda, 1884.ean *Bi itsu-bak* zartzuela jokatu zuen estrainekoz Donostian F. Asenjo Barbieriren musikarekin, eta Iruñean burutu lehiaketa literarioan Pelayo Castilloren *El que nace para ochavo* lanaren itzulpena den *Ardita beti ardit* -esanguia eguintze batian eta bersuan- saritu zioten, urte bertsoan argitaratu emanik Donostiako Peña eta Pozoren etxean -nahiz 1889.eko abenduaren 26ra arte ez zen ohol-tzaratuko-; 1886.ean, berriz, *Petra xardin saltzallia* jostaketa komiko-lirikoa aurkeztu zuen Raimundo Sarriegiren musikarekin, tankera honetakoa ere *Karmen gaztain saltzallia eta zeladore baten estuasu-nak*; 1888.ean Sarriegik musikatu *Pasayan* zartzuela saritu zioten lore jokoetan; 1889.ean *Xordo* bakarriketa taularatu zuen estrainekoz Donostian, 1890.eko Euskal Esnalea-n argitaratu emanen zuena; 1891.ean Emiliano Sanchez Pastorren zortzikotik eginiko *Leokadia esangia edo zarzuelachua egintza batian* egokitzapena eman zuen argitaratu Barojatarren etxean N. Luzuriagaren musikarekin; 1892.ean *Txomin Donostiyan* errebista Luzuriagak musika-

tua eta *Pulpuba* bakarriketa; 1894.ean Navarretearen *Percances de un apellido* lanean oinarria zuen *Onentzaro gaba* egintza bakarrekoma aurkeztu zuen, baita Bilboko Euskaltzalekoek sariturik gai beretsuko *Gabonetan* zartzuela; 1900.ean *Ulijakuak* agertu zuen Donostian; 1902.ean *Ergobiyan* akto bakarrekoma komedia Donostian estrainekoz jokatu zen; 1909.ean *Ikxtina Mutrikun* bakarriketa eman zuen argitaratu Donostian; bakarriketak ere *Joxemaritarak*, *Xardiñak*, *Zinean* eta *Txokolo* lanak izan ziren, gehienetan ere, Pepe Artolarentzat idatzi zituenak.

Alta, eta gorago aipatu Mendiguren-Eizagirrearen ziurtatzen den eran, Iraolaren antzerkien gainetik ipuinak jar litezke, garaian ekarri modernitatearengatik bereziki. Honen lagina ekartzen digute badaren antologian «Tranbian» testuaren bitartez. Añamendikok ere 1907.eko *Baserritarra* aldizkarian agerturiko «Beti bezala» ipuina eskeini ziguten literatura entziklopediaren bigarren alekian. Edozein modutan ere, Iraolaren narratiba zuzen-zuzenean dastatu nahi duenak

1887.ean Donostiako Pozoren etxetik elkiriko *Kontuchoak*

ipuin bildumara jo beza, hala-ber, 1962.ean Zabalak lematu Auspoa bildumaren 9. zenbakiarekin atera

zen *Oroitzak* eta beste ipui asko lana badu irakurgai. Bestalde- tik ere, Iraolak landu pasadizo- xelebrekeria-txantxen generoa ezin aipatzeke laga, horra hor *Euskal esnalea* aldizkariaren orrialde gatz eta piper demasa eman zien *Izkirimiriak*, G. Mujikari Iraola Bilintxen izpiritua- ren jarraileatzat jotzeko arrazo beste eman ziona.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Hegaztia amodio kantetan

Begibistakoa da amodiozko kanta eta balada zaharretan hegaztiak duen ugaritasun sinbolikoa. Zergatik hegaztiak, eta ez beste edozein etxabere edo basapizti ugaztunak? Seguru aski ere, amodio kontu lizunok adieraztekoan kultura kristauak eragindako pudore edo lotsaizuna dela medio. Izan ere, amodioa eta sexu harremanak burutzekoan, hegaztiak fantasiako zeremonia itsuroso eta finagoak egiten baititu, eta bere organu sexualak kasik erakutsi gabe gainera; ez, esate bateko, zaldiak eta behor- rak bezain gordin, beren organu sexual sentsazionalistak amodio grina gorritan erakutsiz.

Badira haragi grinen irudi zoragarriak gizabereon unibertsoan, hitzak arrunt itsusten dituenak, eta halakoetan haragiaren suak ateratzen duen soinu gozo isilik aski betetzen baitu gure arima. Horrexegatik dira, Iraingo Apaiz Gaztearen zenbait kanta, nik inoiz aditu ditudan horteroenetakoak. Hara, Erdi Aroko kutsu sinbolikoa gordetzen duen arrosnabar baten pasarte, konparazio baterako:

Otean motea lorlari / Txoria gainean kantari...

Holako amodio kantuetarako garairik aproposena negua bide zen. Otearen mote edo lore horia soilik inguruan nabarmen, eta hark erakarri du txoria gainera kantari. Horra nolako fineziaz adierazia, gure sexu organuen arteko josteta kilikabera! Aldaera franko baditu, baina, guziek metafora berdintsukoak: *otearen lorea* eta *txori kantaria*. Ez noa gehiago esatera.

Eperrak, bere lumaje apainarekin, bere betondo nabarrekin, bere zango gorriekin, eta bere kantu xaloarekin, neskatxa maitale pantasiosaren itxura liluragarria eta hizketa engainagarria sinbolizatu izan du endemas. Honatx *Mendian zoin den eder* izeneko kantaren hasiera:

Mendian zoin den eder eper zangogorri / Ez da fidatu behar itxura eder horri. / Ene maiteak ere, ber-

tzeak iduri / Niri hitz eman eta gibelaz itzuli.

Eta eperraren kantua maitalearen hizketa engainadore egiten duen trikiti doinurik ezagunena da, berriz, honako hau:

Epérrak kantatzen du goiztan ihintzetan. / Ez zaitela fiatu neskatxen hitzetan / Ai oi ei ai, neskatxen hitzetan!

Legeetara bildu nahi izandu da betidanik amodioa, baina, grina bizlegiak pizten ditu haragiak, legeen mugetara aisa makurtzeko. Ikus bestela, *Peru Gurea Londresen* baladak diona:

Neure oillanda nabarra / txikerra baiña zabala; / zetan hoa hi auzora / etxean oillarra donala.

Begira auzoan nabarmen den *oillanda nabar* horri, *oillara* etxean izanik ere, nola doan auzora, lege kanpoko amodio grinak sutua, senarra «*zirin bedarrak ekartzen*» Londresen duen bitartean.

Sinbologia berberari eutsiz, *goiz oillanda*, deitu izan zaio, mutiltan gaxterik hasten den neskatolari, edo *marxoko oilar gorri* nahiz *oilar gangar gorri* berriz, gaxterik neskazale nabarmentzen den mutilari. Eta zeinen adierazkorra, kolorea bera: *oillanda nabar*, *oilar gorri*...!

Baina, amodio legeak hausteak, nolabait, ohorea galtzea esan nahi du, eta larru kontuan, ditxosozko ohoreak berebiziko inportantzia izaki. Beharko izan, elizak edo zeinahi agintek gizarteko amodio grinak nolabait arautu xeko bazituen. Horixe adierazten du gure kantu zaharretan, *uso kolpatuak*, eta beraz *lumagalduek* edo *lumarik edderrena galdutakoak*.

Zenbat holako *uso zuri* eder ote da, jauntxo izandun batek haurdun utzi ondoren, diru truk beste gizajo pobreren bati disimuloan erantsia? Adi *Urzo xuri polit bat* izeneko kantapuskari:

Gogoz saltzen zinu en urzo kolpatua, / izan balitz mundua arras lokartua.

Eta behin luma galdu ezker, ezin gehiago idatzi nik hegaztiez.

Ziria

• Motxorrosolo •

Aldudeko trenbidea

Pasa den mendekoa dugu Aldudeko trenbidearena. Behobikoak ere zeresan handia izan zuen. Hegoaldekoak, soro guztien gainetik egiteko prest dira, herrilanezikiko zoramenak utzi zuen ondare dute bizibide politikoa. Eskualdeko beharrei erantzunen dion ezin jakin, ezetz dirudi. Hamaika urte igaro dira Beartzun-Aldude errepedearen egitea galdetu zenetik.

Angel Luis de Miguel Eski irakaslea

«Iraupeneko eski estazio baten alde borrokatzen gara»

Angel Luis de Miguelek hamabost urte daramatza Erronkariko Eski Eskolan iraupeneko eskia irakasten. Hasi berri den eski denboraldia aurrekoen antzekoa izanen dela uste du. Dena den, pistak hobetuko dituzte, eta, elurra egiten duen aldiro Zuberoara doan errepidea ez ixteko, makina sail berezia jarriko dute maindire zuria kentzeko.



● MIKEL SAIZ

soslaia

Erronkariko Eski Eskola duela hamabost urte zabaldu zen. Egun 23 irakasle ditu, nahiz eta 50 ere egon izan diren irakasten. Angel Luis de Miguel izabarrak eskolak bezainbat urte daramatza iraupeneko eskian helduak zein gazteak trebatzen. Umoretsu dio, gainera, haurrekin helduekin baino hobeki moldatzen dela.

Eski nordikoko irakasle izateaz gain, Izabako alkatea ere bada Angel. Guztia eramatea ez omen da lan zaila. 400 biztanletik goiti den herriko gorabeherak ez omen diote loa galarazten, eta gakoa «herritarrekin ongi moldatzea» dela dio. Eski kanpainak irauten duen hiru hilabeteetan, horretan ibiltzen da buru-belarri, baina badu beste lanik ere: mendia ustiatzen du bazkide batekin batera.

Ahuntzak mendira jotzen duen moduan, izabarrari nabari zaio inguru hura asko maite duela. Dena dela, guztia ez da lana eta eginbeharra izaten, eta aisialdian, aldi berean ofizio eta afizio duen eskia egiteaz aparte, bizikletan ibiltzen da, eta futbolaren ere aritzen da lagunekin.

AZKAR ETA ZIUR MINTZATU DA Angel. Ez du bi aldiz pentsatzen esan beharrekoa, eta bertakoen interesen eta ingurunearen alde egiten du zentzuz.

■ **Eski denboraldia abiatu berri da. Zer itzaropen duzue?**

Hamabost urte badira eski kanpainarekin hasi ginela. Elurretan gabiltzanontzako betiko beste ur tanta bat da. Sasoi osoan 4.000 ikasle izanen ditugu, eta bestela ere eskiztara etortzen diren hainbat eta hainbat.

■ **Joan den urtean ere maingaineratu zen gaia. Nafarroako Gobernuak bere garaian Larra-Belaguako ingurua erreserba natural izendatu zuen, baina eskirako erabiltzen den pista bat handik igarotzen da. Nola dago afera?**

Nafarroako Gobernuak natura babesteko bidea hartu du eta ongi iruditzen zaigu.

Natura babestu behar da baina jarraitzen ari diren bidea foruaren aurkakoa da. Erronkariko mankomunitatearen herri lurra dena antolatu nahi dutelako. Ados gaude natura gorde behar dela, baina ez gaude prest hura Iruñeko funtzionario elite batek kudeatzeko. Beraz, gure erabilerak eta ohiturak denfendatzen ditugu. Iraupeneko eskia gara daiteke natura errespetatuz, zeren eta iraupeneko eskiak berez natura errespetatzen du; eta kontrakoa esa-

ten duenak ez daki zertaz ari den. European parke naturalan egiten da eski nordikoa. Norvegia, Suedia eta Finlandiako toki gogorrenetan bizitza mantentzeko eski zirkuituak egiten dira, kirola egin bidenabar naturaz gozatu ahal izateko. Behar bezalako iraupeneko eski estazio baten alde borrokatzen ari gara.

■ **Natura babesteaz hitz egiten da, baina Larran bertan etengabea da jendearen joan-etorria, mendira igotzeko -Añamendi kasu- edo elurretan buelta bat emateko. Gauza batzuk kontrolatzen dira eta besteak ez?**

Erabilera nork egiten duen, ikuspegi bat edo bestea izaten da. Erronkariko Bailaran 200.000 ganadu buru egon izan dira eta hortek Larran egon izan dira jendea ganadutik bizi zenean. Larra horrela dago abeltzaintza indartsu

modu batean ikusten dugun mendiko jendeak Pirinioak zuhaitzez birpoblatzen ari direla ikusten dugu. Mendia galitzen ari da ez delako erabiltzen, eta lahar asko ateratzen ari da. Gauzak errespetuz tratatzen badira, ez dira erabiltzeagatik, eta hondatzen badira gehiegikeriagatik da.

■ **Parke naturalaren inguruan badago berririk?**

Erronkariko Bailara eta Izabako Udala aurka gaude, eta ahal baldin badugu ez digute lur zatitxo bat bera ere kenduko. Gurea da eta ez digute ostuko, nahiz eta ekologismo moduan saldu nahi diguten. Guk hartu genuen eta horrela utziko diegu ondorengoei. Mendia erabiltzea ez dio-

«Nafarroatik Zuberoara doan errepidea otsailean talde autonomo batek zabalduko du, eta Nafarroako Gobernuak bere lanak egingen ditu. Horrela errepidea beti zabalik egonen da»

bat izan delako natura babesten. Orduan baziren hartzak, bestelako animaliak... Egun ez dago ganadu gehiegirik, ez delako errentagarria, baina horrek ez du esan nahi desagertuko denik. Natura beste

gu inori eragotzi nahi, baina beti zaindu izan duen herriotako jendea da haren jabea.

■ **Eta pistak hobetzeko proiektua aurrera doa.**

Bai. Hobetu dugu Bagomaltan dagoen zirkuitua. Bestal-

de, Txamantxoiako gainetik ateratzen den pista ere hobetu dugu. El Ferialeko zurezko etxola jarriko dugu, orain arte zegoen plastikoaren ordez. Etxe hori El Rinconera jaitsiko dugu, hango eskiztazileendako. El Ferialeko pistak hobetu ere egin behar ditugu, eta bukatutakoan borda bat eraiki.

■ **Pistak hobetu nahi dituzuen arren, Nafarroatik Zuberoara doan errepidearekin arazoak dituzue beti, eta elurra egiten duenean itxi egiten da.**

Bai. Erronkarik handiena hori da. Hobetu egin behar dugu. Otsailean talde autonomo batek zabalduko du, eta Nafarroako Gobernuak bere lanak egingen ditu.

■ **Abantaila handia izanen da.**

Belaguako aterperaino zabalik egonen da, eta iraupeneko eskiak funtzionatu ahal izanen du behar den bezala. Aurrera begira errepidea ere hobetu behar da, zabaldu eta bihurtuneren bat kendu, elurra kentzeko makinek arazorik izan ez dezaten. Gero Araizko lepoa dago, puntu beltza. Pirinioetako leihoa da, elurra erraz sartzen da eta errepidea ixten du. 200 metroan errepidea estali beharko dugu ezponda bat eginez. Horrela beste estazioen mailan egonen ginateke.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko urtarrilaren 22 a

ZALDIEROA.komikizopa

KOSKI JATOR

PATIENTIA
OMNIA
SAPIENTIA



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Milenarismoa

Zalantzak zalantza eta eztabaidak eztabaida, badirudi hurrengo mendea ez zaigula batzuek uste bezain laster hasiko. Antza denez, ez da hurrengo abenduaren amaizarekin bat etorriko baizik eta urtebete beranduago. Pisuzko arrazoi zientifikoak daude hala dela egiaztatzeko, hortaz ez naiz sartuko hain urrun gelditzen zaizkidan putzu lokaztuetan. Beste kontu bat nafarkariatu nahi dut. Izan ere, atzera begiratuko bagenu barregarri iritziko genioke duela mila urte gure arbasoek milenio berria zela eta sortu zuten iskanbilari. Liburuek diotenez milagarren urtean sartzean munduaren amaiera etorriko zelako ustea oso zabaldua zegoen antzinako gizon-emakume horien artean. Hori dela eta, hamaika modu asmatu zituzten hori gerta ez zedin. Gehienetan bezala erlijioa izan zen hautaturiko ihesbide horien artean nagusia, eta Eliza Katolikoaren eragina handitu zen. Zorigaitz-toko urtea igaro zen, eta, munduak bere horretan zirauela ikusirik, histeria albo-ratu eta euren ohiko bizimodura itzuli ziren (gerrak, izurriteak eta abar).

Mila urte hauetan gauzak aldatu egin dira. Batetik, mila urte zaharrago garelako. Bestetik, azken berrogeita hamar urtetik hona jakin badakigulako munduaren suntsipena edozein momentutan gerta daitekeela, aski baita horretarako botoi egokia (desegokia) zapaltzea.

Dena den, milenarismoa gure artean dago berriro ere. Izen berezia hartu du oraingo honetan, azken urte hauetako jaungoikoari egokitua: ordenagailua. Milenarismo berriak 2000 Efectua du izena, eta eguna hurbildu ahala gero eta nabariagoa da milenarismo berri honek sortzen duen histeria.

Egunotan, UPNren gobernuak efektu horri aurre egiteko plangintza aurkeztu du. Bejondeiela. Euskaldunok, gure hizkuntza zaharra besapean, duela hilabete inguru sartu ginen XXI. mendean eta ez zaigu ezer gertatu. Behingoz eta zeozertan aurreratu egin gara.

Hala ere, eta badaezpada, nire idazmakina zaharrarean ari naiz idazten. Euskaldun fededun.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► Gares:

Reincidentes eta Mendeku taldeek kontzertua eskainiko dute, bihar, 23:00etan, Gares aretoan. Sarrerak 1.800 pezeta balio du.

► Elizondo:

Desoreka taldearen kontzertua izanen da gaur, 22:30etatik aitzina Casino tabernan.

► Iruñea:

De dos en Blues Band taldearen emanaldia izanen da gaur Errotxapea auzoko Garaio tabernan 23:30etan.

ANTZERKIA

► Iruñea:

Truke taldeak *Kontu kontari* lana taularatuko du bihar eta etzi, 20:00etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ERAKUSKETAK

► Iruñea:

San Antonioko elizaren behekaldean Kaputxinoen bizitzaren inguruko erakusketa ikus daiteke asteleheneretik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

► Iruñea:

Lacava galerian Patxi Araujoren hamahiru estampa erotikogotiko ikus daitezke hila-ren bukaera arte.

► Atarrabia:

M^a Jose Lopez Abrilak 1995etik 1998ra bitartean margotutako olio lanak ikus daitezke Kultur Etxean, asteleheneretik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.

► Tafalla:

Pablo Picassoren *Suite Vollard* grabatuak ikusteko aukera dago kultur patronatuaren aretoan.

ZINEMA

► Iruñea:

Karrikiri Elkarteak antolatuta, zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Hodei iragankor* pelikula emango dute, 20:00etan. Aurretik,

Nola egin amodioa emakume bati eta *Sexua eta Bortizkeria* film laburrak eskainiko dituzte.

► Iruñea:

Olite zinematokian, *Ariane* pelikula eskainiko da datorren asteartean, hilak 26, 19:45etan.

BESTELAKOAK

► Iruñea:

Alberto Orella eskultorea bere

lanaz mintzatuko da asteazkenean Maisonnave hotelen, 19:30etan.

► Iruñea:

Datorren asteazkenean, Zaldiko Maldiko elkartearen, Iruñeko historiari buruz mintzatu-ko da Roldan Jimeno irakaslea, 20:00etan.

► Iruñea:

Tomas Muñoz Asensio Arte Ederretako doktoreak *La escenografía: arquitectura del*


yeso y del viento hitzaldia eskainiko du datorren astelehenean, 20:00etan. Iruñeko Kutxak Armada Etorbideko bigarrenean atarian duen egoitzan.

► Iruñea:

Nafarroako Kirol Elkartearen *Pirineos: hielo y nieve. Historias de un invierno* diapositiba emanaldia eskainiko du Joseba Ugartek gaur 20:00etan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¡Que San Roquiño nos liberte de médicos, abogados e boticarios!

Aita San Erreketxok libra begaitza medikuetatik, aholkuetatik eta botika-saltzaileetatik!